


# 1. KOMUNIKAZIOA ETA PUBLIZITATEA

## KOMUNIKAZIOA


Igorle batek hartzaile bati mezu bat igortzea, kanal konkretu bat erabiliz, aurrez ezarritako helburu bat lortzeko.



- **Mezuaren helburua:**
  - Zertarako?
  - Zer lortu nahi da?
  - Zer erreakzio espero da?
- **Igorlea:** Pertsona, kolektiboa, erakundea...
- **Hartzailea:** Pertsona, kolektiboa, erakundea...
- **BITARTEKOA / KANALAK**

## Komunikazio motak


- Pertsonen arteko komunikazioa: 1-1
  - Aurrez aurrekoa
  - Bitartekoak baliatuz: telefonoa, gutuna, maila...
- Masa komunikazioa: batek-askori
  - Normalean, bitartekoak erabiliz: prentsa, irratia, telebista...
- Sare sozialen bidezko komunikazioa



### Entzutea hariera baino ez da

- **Zeri entzun:** edukiari, tonuari, erritmoari, gorputzari, sentimenduei...
- **Nola entzun:** Jarrera erakutsi (begiratu, distantzia zaindu, ukitu...) kontzentratu, ulertu, enpatizatu, galderak egin, argitu, (oharrak hartu), erantzun, gogoratu...

### Komunikazioaren eskema klasikoa



### Zaratak / Oztopoak / Hesiak

- **Pertsonalak:**
  - Norberaren izaera, kultura, balioak... mezua igortzeko/hartzeko orduan...
  - Informazioa interpretatzeko "iragazkiak" estereotipoak, ironia ulertzea, defentsiban aditzea, zati bat aditzea...
- **Semantikoak:** Hizkuntza, hiztegia, mezua (luzeegia...)
- **Fisikoak:** Zaratak, argiztapena, distantzia, tenperatura...
- **Sentimenduzkoak**

## KOMUNIKAZIOAREN TEORIAK

### Shannonen Informazioaren Teoria (1948)


- **Komunikazioaren Teoria Matematikoa**
- **Komunikazioa:** Informazioaren transmisioa
- **Kezka nagusia:** Nola transmititu ahalik eta merkeen eta ahalik eta ondoen ahotsa

### Laswellen paradigma




- **NORK? = WHO SAYS?**
- **ZER? = WHAT?**
- **ZEREN BIDEZ? = IN WHICH CHANNEL?**
- **NORENTZAT? = TO WHOM?**
- **ZER ERAGIN? = WITH WHAT EFFECT?**

### ➤ **KOMUNIKAZIO-PROZESU GUZTIETAN EGIN BEHARREKO GALDERAK**

### Informazioaren galera



# PUBLIZITATEA



ITURRIA = Information source

IGORLEA = Transmitter

HARTZAILEA = Receiver


HELBURUA = Destination

## Komunikazioa publizitatean


- IGORLEA: Iragarlea (Mezuaren helburua)
- MEZUA: Iragarkia (spota, kuña, modulua...)
- BITARTEKOA: Hedabidea izan ohi da
- HARTZAILEA: Kontsumitzailea (Mezuaren interpretazioa)
- TESTUINGURUA:
  - Eragina
  - Feed-back
- ZARATA

## Pertzepzioa

- Ingurunetik jasotako estimuluaren antolaketa, identifikazioa eta interpretazioa da.
- Gizakiok zentzumeneren bitartez hautematen ditugu seinaleak.



- Seinale beraren aurrean, hartzaile bakoitzak bere interpretazioa egiten du:
  - Zentzumenez gain, aurretik izandakoa esperientzien oroimenak eta ikasketak ere eragina dute.



### Publizitatearen definizioa

“Izaera ez-pertsonala duen komunikazio-prozesu kontrolatua; prozesu horren bitartez, produktu, zerbitzu, ideia edo erakunde bat eman nahi da ezagutzera masa-komunikabideak erabiliz, horrei buruzko informazioa emateko, edota xede-publikoak erosi eta onar ditzan.”

### Definizioan nabarmentzekoak

1. Komunikazio-prozesua
2. Izaera ez-pertsonala
3. Ordaindutako eta kontrolatutako komunikazioa
4. Masa-komunikabidea
5. Produktua, zerbitzua, ideia edo erakundea
6. Informatzea, erosketan eragitea edo onarpena.



### Zergatik aztertu publizitatea?

- Publizitatea hurbiltzeko arrazoiak:
  - Jakin-mina
  - Publizitatez inguratuta gaudelako
  - Gizartean (guztiongan) eragina duelako
  - Erakargarria delako
  - “Karrerari agintzen digutelako”
  - “Horretan lan egin nahi dudalako”
  - Diru asko mugitzen duelako

### Definizioak: Komunikazio Komertziala eta Instituzionala

- **PUBLIZITATEA:**
  - Komunikazio **MASIBOA** da, **INFORMAZIOA EMATEKO** eta **HARTZAILEEN JARRERETAN** eragina izateko helburua duena (jarrerak sortzen, aldatzen nahiz berrindartzen).
  - Helburu nagusia, hartzaileek **IRAGARLEAREN ALDEKO JARRERA** har dezaten da.
    - Publizitate **KOMERTZIALAREN** helburu nagusia: Hitz batean esanda, **PRODUKTUA EDO ZERBITZUA SALTZEA** da.
    - Publizitate **INSTITUZIONALAREN** (soziala) helburu nagusia: Hartzailearengan ideia, jarrera edota jokabide konkretu batzuk

onartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko **PERSUADITZEA** da.

- Honetarako **ESPAZIOAK** erosten dira hedabideetan.

- **HARREMAN PUBLIKOAK (HHPP):**

- Komunikazio prozesu bat da, **KOMUNIKAZIO KORPORATIBOA, PLANIFIKATUA** eta **IRAUNKORRA** denboran, enpresak dituen kanpoko zein barneko publiko desberdinekin **KONFIANTZAZKO HARREMANAK** ezartzen saiatzen dena.
- Helburu nagusia: korporazioen (enpresa eta instituzioen) **IRUDIA** zaintzea da, bere beharren arabera (zabaltzea, aldatzea, etab.)
- Horretarako ez da soilik espazio bat erosten, **MERKATUAN** (gizarteko hedabideetan), leku bat izatea beharrezkoa da.

***PUBLIZITATEA / PROPAGANDA / PUBLICITY***

- **PUBLIZITATEA => Iragarkiak (adverts, ad)**
- **PROPAGANDA => Politika**

➤ **INGELESEZ**

- **ADVERTISING => Publizitatea**
- **PUBLICITY => Hedabideetan agertzen diren gainerako “berriak” (iragarkiak ez direnak)**